
ORIOKO HERRIA



JABIER LERTXUNDI

Orioko herria bertako portuaren kokaera estrategikoaren babesean sortu zen. Donostia XII. mendean fundatu zenean, **Orioko** lurrak ere barne hartzen zituen eta portu honetatik abiatzen ziren merkataritzan aritzen ziren ontziak Ingalaterra eta Europako beste herrialde batzuetara, burdina eramanez batez ere.



Pedro Texeiraren Orioko mapa, 1634.urtekoa

San Nikolas elizaren inguruan sortutako asentamendu txiki hark 1379ko uztailaren 2an jaso zuen bere udal-independentzia Joan I. Gaztelako erregearen eskutik; hiribildu sortu berriari zenbait pribilegio eman zizkion merkataritzaren arloan, *Villarreal de San Nicolás de Orio* izenpean.



KUTXA FOTOTEKA

Ondorengo erregeek ere eskubide horiei eutsi zieten eta garrantzizkoena, beharbada, Errege Katolikoek 1560an emandakoa izan zen, itsasadarreko alde batetik bestera igarotzen ziren bidaiari eta merkantzien ustiapen-



Jiménez Bernales-en grabatua



PASAJES ESPAÑOLES

eskubidea aitortu baitzioten **Oriori**. Kontuan izan behar da nahitaezko pasabidea zela, *Kostaldeko Galtzadak* ezinbestean eramaten baitzituen harantz bidaiariak. Hainbat mende



JABIER ZABALETA

eraiki zen, eta horrekin batera desagertu zen txalupa-zainaren figura, guk uste **Orion** ordurarte sendo erroturik egon zena.

Herrigune historikoak bere horretan eutsi dio Erdi Aroko hiribilduaren jatorrizko eskemari. Erdian etxe-multzo bat eta alboetan beste bi dituela, hiri-egituraren abiapuntua osatzen du, bi kaleren inguruan antolatuta, biak ere antzinako bideekin bat datozenak: bata Donostiako bidea *(Kale Nagusia)* eta bestea Oria ibarrerantz doana *(Urdaire kalea)*. Multzo osoa trinko ageri da, eraikin guztiek elkarrekin harresia osatuz, beheraldean dagoen *San Nikolas* eliza barne.

Udal barrutian sakabanatuta dauden baserrietako askok balio historikoa edota etnografikoa dute. Erdi Aroan sortuak dira: *Agirre* edo *Katxiña, Aizperro, Aganduru* (arkuz osatutako ataria eduki zuen, dorretxe eta gizon ospetsuen sorleku ere izan zen), *Errezabal* (arku zorrotz bat du eta, ziurrenik, komentua izan zen) eta *Lusarbeaundi*.



IMANOL GOIKOETXEA

Beste batzuek baserriko eraikuntza tradizionalaren elementuak dauzkate oraindik: *Arizmendik* garbitegia, tolarea eta zurezko armazoiak ditu eta bertan zegoen eskola; *Salmaristi*, antzinako ontziralekua (*molla*) duena; *Itxaspe*, leku bazter batean dagoena, **Orioko** ederrena agian; eta *Munioetazarra*, antzinako galtzadaren alboan.



JABIER ZABALETA

Azkenik, industri jarduera tradizionalaren aztarnak ere badira, *Sariako ola* izenak adierazten duen bezalaxe, burdinola izan zen eta




ORIOKO TURISMO BULEGOA

Sortu zen garaiko egiturari eusten dio **Orioк** eta sasoi bateko etxe ugari ere dauzka oraindik: Erdi Arokoak, errenazentistak eta barrokoak. Aipamen berezia merezi du *San Nikolas* elizak, topografiari egokituz eraikita baitago. Jatorria XIII. mendean du, nahiz eta gaur egungo tenplua XVI.ekoa izan. Bere inguruan antolatu zen jatorrizko hiribilduа eta txoko ikusgarriak ditu, *Salatxoko* pasabidea esate baterako, edota elizako zimitorioa eta apaizaren etxea lotzen dituen zurezko zubia, Orioko irudi tipikoa.



DIDIER PETIT DE MEURVILLE

Orioko landa-inguruetan badira beste eraikin eta aztarna interesgarri batzuk ere. *Tontortzikiko* monumentu megalitikoak, artzain-kultura neolitikoaren lekuko, herriko aztarnarik aspaldikoenak ditugu eta kostaldeko bidearen antzinatasuna adierazten dute.



KUTXA FOTOTEKA

Herritik ez oso urrun aurki daiteke *San Martin ermita*, ahozko tradizioak dioenez, hiribilduko lehen parrokia izan zena. Nolanahi ere, San Martin gurtzeko joera ohikoa izan da beti erromesen eta



KUTXA FOTOTEKA



KUTXA FOTOTEKA



KUTXA FOTOTEKA

dituen galtzada horren arrastoak *Aganduru* baserriaren inguruan ikus daitezke oraindik ere.

Aiako udalerri mugakideak pribilegio hori baliogabetu nahi izan zuen, baina Valladolideko Goi-Auzitegiak (*Chancilleria* delakoak) **Oriоren** aldeko epaia eman zuen 1621ean, herriko alkatearen eskumena itsasadar osora heda zedin aginduz *"itsasgoran unik bizienak iristen diren lekuraino"*.

Gaur egun itsasadarra dotore zeharkatzen duen zubia XIX. mendean



JOXEMARI OLAGARAI

ibiltarien artean. 1584an berriro eraiki zen, lehenagotik zegoen beste tenplu baten gainean, ziurrenik erromanikoa.

sasoi hartako gerakin garrantzitsuak ditu oraindik. XX. mendean espartzua eta jutea egiteko fabrika bat instalatu zen, azkenean itxi egin zena. *Mareaerrotan*, berriz, bertako jarduera interesgarria gogorazteko, toponimoa eta uharkaren aztarnaren bat besterik ez da geratu. Itsasaldien gora-beherak aprobetxatzen zituen errota izan zen. 1705ean funtzionatu zuen lehen aldiz, baina ez zen sekula produkzio oparorik lortzera iritsi. Beste errota *Txankagoikoa* izan zen, gaur egun desagertua.

Lerro labur hauetan, **Orioк** gordetzen duen ondare interesgarriaren zati txiki bat azaldu da. Etorkizunean ere iraunaraztea, guztiok dugu eginkizun.



KARKARA